

KORAPILO BAKO SOKA

Nerea Eizagirre Telleria, 17 urte

Zumaia

Lanbroa bere soineko ilunenaz jantzirik azaldu da. Heze dago arratsa, heze eta hotz, arrosen petaloak arrakalatzearainoko gordinkeriaz. Behe-lainoa sartu zen behin Montparnasseko hilerrira, pausatu zen, pausatu geldoki harri artean, eta ordutik, bertan apopilo dirau lasai antzean, hanka egiteko asmorik zipitzena ez duenaren eitez. Taosa egonean dago, hezetasuna liliei jantzi berriak josten ari da, eta haizea, berriz, dantza-dantzari dabil berezko zaion arintasunaz. Halaxe, *fiuuuu-fiuuuuuuuu*, nekosten zuhurtasuna zapuztu nahian.

Harri beltzen artetik pauso herabeak agertu dira; *tipi-tapa-tipi*, *tapa-tapa-tipi*, noraezean dabilzanak, orain ipar, orain hego. Noraezak bi izenez apaindutako hilarri baten parean hartu du sosegu. Haize-hankak orain otzanago, begi-ihintzak blai eginda eta bihotza behe-laino, hilarri parean kieto diraute pausoek. Pauso bitxiak dira, matrail-hezurrak hautsi berritan Charlotten hilarri parera Umore handiaz galdezka joango liratekeenak; begiak zilborretik altxatzean Che-ren harriarenga-

na Borroka ausartaren inguruko gogoetan; edo Martin Lutter Kingengana Duintasun apartekoa ezagutu nahirik hurbilduko liratekeenak. Pauso artegak, jakin-minez beteak, baina gaur, lur jota Montparnasseko harriaren parean zera absolutu handiegi zabalegi unibertsal pertsonal horretaz galdetu asmoz pausatu direnak.

–Etorri zen irri bihurrienaz estu hartu ninduen, estu zoratzerraino. Orain iheska doa ene albotik, ene baitatik, badoa ni huts-hutsik utzirik. Gaur jakin gura dut nor ote den alu hori, hain susper-tzaile eta lapur handi hori! Esan iezadazue, bada, zein arraio den madarikatu hori!

Betiereko loan murgildurik zen bikotea, elkarren artean lurra, eta elkarren artean ezereza beste ezer ez zuen bikotea. Lasai etzanik irauin izan dute Montparnasseko harripeetan, lasai-lasai, gaurko pauso herabeak laguntza eske agertu artean.

–Harrapa ezan!

–Ez diagu lan erraza, ez!

Burua urdindua duten aitona-amona pareira iratzarri da zirauen lozorrotik. Hankak astindu dituzte lehenbizi, nagiak atera gero, eta ondoren, elkarri begiratu diote, begi pareak dirdirka hasi zaizkien heinean.

Lehen pausoa emakumeak eman du, eta blaust, lurrera jausi berehalakoan. Hurrengo pauso baldarra gizonak eman du, zeinak grabitatearen legea garaitzeko ahalegin xume baten osteko hasperena egin duen. Biak lurrazalean, elkarri so, elkarri kei-nuka, barrezka hasi dira, barrezka, matrail-hezu-

rrak urratzeraino. Esango nuke ibiltzea ere ahaztu zaiena pentsatze hutsak zeharo xalotu, zeharo umekoitu dituela biok.

Azkenik, emakumea irmotasunez jaiki da, eman lehenengo pausoa, bigarrena, hirugarrena, hasi da arineketan, hasi jauzika, *Egina zagok!* Segidan, gizonari luzatu dio eskua, eta halaxe, elkarren epelean, Montparnasseko lurra zanpatu dute, herdoildutako atetik igaro dira, eta diosala luzatu diote nekostei.

–Eta zein da bada, zera kilikagarri, emaile handi, lapur handiago hori?

–Zein den, non dagoen, zaila dun esaten!

–Ba, orduan, nolakoa da?

–Ez zakinat hura deskribatzen, baina nahiko zoroa dun. Supituki etortzen zain, harrapatzen hau, eta hire neuronatxoek eginahalak eginagatik bere mende hartzen hau. Hire buru zuhurak ez eta ez, baina hark gutxien espero dunanarengana gidatzen hau.

–Diktadore buruarin xamarra duk orduan.

–Bai, hagitz irrazionala.

Hala, kalean barrena doa aitona-amona pareta, txor-txorka, iji eta ujuka. *Hau eguzkiaren ederra!* Hara eta hona dabilta, erakusleihoei harriduraz begiratuz, jendea miresmenez aztertuz, txokolatearen erreinuan dabilta bi umetxo bailiran. Elkar ukitzen dute, bizia bor-borka sentitu, eta igartzen dute mundua gelditua zaiela beraien hankazpian. Uste dute denbora eta espazioa gelditzeko gai direla, baina eurek ezagutu eta irauli nahi izan zuten

gizarteak jarraitu zuen, iraungi zen, eta orain arrotz hutsak besterik ez dira oharkabeen azaldu zaien mundu honetan. Lekuzkanpokeria guztiak ordea, elkarri begiratzean uxatzen zaizkie, dirdirek sinestarazten baitiete inguruko guztia hutsa dela, euren hizketa luze-sakonek meteoritoak hautsiko dituztela uste dute, eta euren fereken epelak Groenlandia urtuko duela. Hain dira inozo, ezen denbora galtzen zaien hitzetik hitzera, eta begiradatik begirada ahaztu egin zaie patuak zertarako itzularazi dituen gurpil zoroaren gainera.

–Non aurkituko dugu zera hori?

–Ez zakiat aurkituko ote dugun ere, baina goazemak bilatzera.

Halaxe, euren zereginaz jabeturik, kalerik kale abiatu dira. Jendartean dabilta, eta ibiltze horretan, jende andanari jarraiki, metroko estazioan topatu dute euren burua. Harrituta begiratu diote elkarri, bere kabuz mugitzen diren eskailerak, ipurtargiz josita diruditen kartelak “orain lurpetik ibiliko dun tren”, eta bai, XXI. mendeko satorraren bagoi batean sartu dira.

Harritu dira, albokoaren besazpia sudur parean sentitu dutenean, edo aldamenekoaren taupadak eurenak baino gertuago sentitzean. Halaber, gertutasun fisikoak baino urruntasun metafisikoak harritu ditu. Izan ere, ohartu dira, elkarren izerdi kiratsa igartzeko bezain gertu egonagatik, gizakiek ez dutela elkarri begietara begiratzeko paradarik hartzen bagoi jendetsuotan. Eta gertutasun horretan elkarri ukalondokoak ematen ikusten dituzte,

danba eta danba, beti ere “excuse moi” diplomati-koaren katamalopean.

Zur eta lur elkarri begiratzen dioten horretan, jendea sartzen eta irteten ari da bagoitik, “*La gare de la nuite folle*”, bozgorailuak oihukatzen duen artean. Sartu dira zazpi, hamaika, hamazazpi, ez dakit, ez nuke jakingo esaten. Agure zahar pareak, ordea, bikote gazte batengan iltzatu du soa. Biek irribarretik pikaroena begitar-tean dutelarik gurut-zatu dituzte atea, eta irrikatsu barneratu dira sardina-lataren girora. Gainontzeko bidaiariak ez bezala, albokoaren izerdi kiratsak usaindu behar-rak ez ditu gehiegi amorrarazten, irribarretik ez baitzaie ihesten aurpegitik. Halaxe, agure zahar pareak leihotik begiratu du, eta baita antzeman eta satorrak zeharkatzen dituen lurrazpiko lur beltzak, pixkana-pixkana gorritzen doazenak.

–Gu ere halakoak al ginen?

–Bai, maite, izan gintunan.

Buru urdindu pareak arretaz, irrikaz, begiratzen dio bikote gazteari. Gertutasun fisikotik haien irri-ñoak, haien eskutxoak ikusten dituzte eta gertuta-sun metafisikotik haien bihotz-taupadak sentitu. Halaxe, bagoia bera urtzen doa masailean eman-dako musu bakoitzeko, lepoan eginiko kilima bakoitzeko. Sardina-lata aurrerantz doa lur azpian barna, halaber, bikote gazteak egundaino ez du maindire hezeen usainik atzean utzi, eta hortxe doaz bagoian, erdi hegan, erdi flotatzen.

Behin eta berriz bozgoraila “*La gare ...*” esanaz hasten da, eta halakoetan, bi gazteei elkar besar-

katzea besterik ez zaie gelditzen, euren patuaren jakitun direlako. Hamaika aldiz azaldua da ahots anonimoa, eta azkeneko aldiz elkarrekin aditzean gorrotagarria iruditu zaie, “*Prochaine gare, la gare de l’adieu*”, iritsi baitzaie belarrietara, iritsi bihotz gorietara. Eurek espazioa eta denbora ahaztu izanagatik, erdi hegan ibili izanagatik, patuak bere horretan iraun baitu, iraun du, azkenean harrapatu dituen arte.

Orduantxe, patuaren hatzaparrek lurrerarazi dituztenean, ahoek bat egin dute, mihiak elkarrekin zorabiatu dira, eta eskuek azaleko mapak irakurtzeari ekin diote. Horko sugarra, horko txinparta, ene!, eguzkia bera ere epel bi hauen aldean. Halaxe, “*La gare de l’adieu*”, gorrotagarria, mihi goxoen azkeneko balada, eta eskutxo egosiek azala urratzeraino ferekatzeari ekin diote, bestearen erliebea betiko gogoan gorde nahiko bailuten.

Bata jaitsi da bagoitik, oraindik ere bestearen usaina azalean josia duelarik, eta atea igarotzear denean buelta erdia emanaz “nire zenbakia: 6567564...” oihukatuz hasi da. Besteak irriñoa itzuli dio, azken agurraren zantzuz. Biek ala biek ondotxo dakite “zenbaki saltsaren antzerkia”k ez beste ezerk ez dituela bigarrenkoz elkartuko. Biek ala biek ondotxo dakite gaur, oraindik ezpainak zapoetsu xamar dituzten honetan, elkarren erliebeak marraztuko dituztela amets hezeetan, baina are hobeto jakin ere, besteren batek goxatuko dizkiela bihar ezpainak.

–Hau dun, hau inbidia!

–Bai, Paul, garai ederrak askatasunaren haiek!

–Gu ere saiatu gintunan gure artekoa gau hezeta-
retara soilik mugatzen. Bereziki hi, ai, *mon guerrière*
Simone! Akordatzen naun oraindik ere “ni emaku-
me askea nauk, nire gorputzaren jabea, sekula ino-
rena izango ez dena; beraz, gaurkoa ederra izana-
gatik *au revoir!*” Baina biharamunean edo etzida-
muan berriz esaten genionan elkarri bonjour,
behin eta berriz, *bonjour*.

–Halere, bonjour mila bider esanagatik ez zioat
sekula aske izateari utzi. Baina ezta hik ere, liberta-
tearen eta existentziaren jauntxo horrek.

–Ez, neska, ez. Eta zaila zunan ba, gure garai
haietan! Dena kontra geninan, dena ilun, dena
ezkutuko, dena molde bakan.

–Baina irauli genian apurtxo bat, ez al duk uste?

–Bai, garaian bai, baina ez al dun ikusten, egu-
notan oraindik ere sistemaren atzaparrak, erlijio-
ak, eta gainerako zapalketek bere horretan dirau-
tela?

–Ikusiko ez diat ba, eta ahaztu zaik oraindik ere
zapaltzen gaituen “genero gorena” aipatzea.

–Bai, hire “bigarren sexua”k oraindik garaikidea
izaten jarraitzen din.

–Zoritzarrez, ez duk egundaino iraungi.

–Gu iraungi gintunan ba, eta gaurkoan oharka-
bean itzularazi gaitizten. Harira etorriz, zer dun,
bada, hiretzat zera mugagabe irrazional gori hori?
Sua akaso?

–Bai, sua bai, hala uste izan nian luzaroan. Baina
denborak erakutsi zidak zerbait gehiago ere badela.

–Akaso, halakorik?

–Halakorik!! Ez, Paul, ez hadi pasa!

“*La gare de la possession*”era iritsi berri dira, hor dabil aiton-amona pareta hitz eta pitz, eta bikote irribarretsu bat sartu berritan, “Akaso, halakorik?” bota dio Paulek Simoneri, ironiarik finenaz. Hortxe sartu da oraindik ere Kariben eztitutako ezteibidaian hartutako beltzarana soinean daraman bikote gaztea. Biak sartu dira irribarrerik zabalenaz, euren bozkarioa urrunetik antzematen zaielarik. Simonek ia-ia begiak itxi ditu, urrezko eraztun pareak sortzen duen dirdirak begiak mindu baitizkio. “Halakorik! Ez, Paul, ez hadi pasa!” izan da Pauli botatako harrabotsa.

Leihotik begiratu du mahaspasa pareak, eta hiri handiko lurpea zuriagoa dela ikusi dute oraingotan. “*La gare de la nuit folle*”ko gorritasunik ez dute oraingotan paretek, askozaz ere zurixkagoak, apalagoak baitira “*La gare de la possession*” ingurutako paretak. Baina bueno, denak du ziorik, ohe elkarbanatua duenak nahikoa lan bai baitu logelako paretak gorriz margotuta mantentzearekin, etxetik kanpoko paretez arduratzen hasteko.

Horrexegatik, apalxeagoa da ezkonberri diruditen hauen bidaia. Eta bozgorailua berriketan hasi bakoitzeko ez dute elkar besarkatzeko beharrik sentitzen, hauek ere euren patuaren jakitun baitira. Jakitun dira, heriotzak banatu arteko akordioa sinatua dutela elkarren onespenez. Hitzartuta dutela bata bestearena dela eta bestea batarena, norberak norberarena izateari utzirik. Hori guztia

ondotxo adostuta dute, eta badaezpada ere, inork zalantzarik izan ez dezan, hara hor eraztunak.

Hitz eta pitz dabil bikote gaztea, baliteke euren etxe berriko mahaiatz hizketan aritzea, amaginarrebaren urtebetetzeaz, edo laster umetxo bat munduratu beharraz. Tartean-tartean, atzo gaueko saiotxo ere aipatuko dute, beno, goraiatu, eta gaur gauerako antzerako programaziorik iragarriko dute. Zorionsu dira, norbera izaten jarraiturik bestearen jabetza dutelako, ni=zu+ni izaten hasi direlako.

Gazteen bozkarioaren aurrean kezkatu azaldu dira aiton-amonak. Solasaldi luzearen ostean ere, ezin zehatz baitezakete non dagoen “bestearekin konpartitzen dudan ni” izaten jarraitzearen eta “bestearen ni” bilakatzearen arteko muga. Simoneri berezko zaion eszeptizismoaz, etsi xamar agertu da denboraren joanagatik maitasunaren moldeek bere horretan dirautena ikustean. Paulek, bestalde, existentzialismoaren eta askatasunaren jauntxoak, “Eta zer, hire izana besteari oparitzen badion bestearen jabetzaren truk? Ez al daukan ba askatasunik horretarako?”

Halaxe hasi dira, idealak direnak, praktikatu dituztenak, eta bestelako hitz potoloak esanaz. Euren artekoari errepasotxo eman diote, eta jabetu dira, hasieran “askatasunaren oihan” mugagabea zenak, azkenean, euren arteko distantzia mugatu zuela. Izan ere, oihan horretan, mila ohe, hamaika *menage à trois*, eta hogeita hamazazpi mila maiteño kabitu izan baziren ere, denboraren pode-

rioz askatasuna bien arteko distantzia mugatzen joan zitzaien.

–Eta gure artekoa zer dun, katea?

–Ez, ez, katea ez, motel!

Nahita ala nahi gabe, hasieran lotura hitzak bertigorik sortarazten bazien ere, denborarekin hariak josten joan ziren bien artean. Eta kontrakorik uste bada ere, posible da su berean behin baino gehiagotan erretzea, ametsetan halako oihartzunik sortzeraino. Baina tamalez, lehenago edo geroago sua otzandu ohi da, eta orduantxe, keak eta txinpartak desegitean, gogoz eta izanez ehundutako hariak soilik diraute.

–Gure artekoa oihana zuan!

–Oihan basatiki askea!

Oihanean, zorionez, ez da legerik existitzen. Eta bertan, posible da hamaika su dastatzea, hamabi txinpartarekin erretzea. Biek badakite oihaneko beterano izan direla luzaroan, eta harro daude horretaz. Halaber, badakite, behinola denboraren poderioz oihan mugagabe horren barnean, bestea gogotsu bilatzen hasi zirena. Eta halaxe, surik su, euren izanak amaraunean iltzaturik gelditzen joan zirela. Ehundu zitzaien, bada, bien arteko haria. Hasieran hari mehe arbuigarria, gero lokarri lodixeagoa, azkenean soka bilakatu zena.

Biek ala biek ukatzen zuten behinola euren artean gogoen arteko harremanik zegoena, sentimenduak Askatasunari oparitu nahiko balizkiote bezala. Baina sentimenduak batzuetan jabetza dira giza-kientzat, aukeratzen ez diren jabetza. Eta horrela-

xe, nahita ala nahi gabe, ekidin ezinezko soka sortua zitzaien. Bai, soka lodi sendoa, urrezko eraztunik behar ez zuena, leialtasunaren premiarik ere ez zuena.

–Ohartu al haiz, Askatasun hitzarekin errimatzten duela?

–Zeinek? Korapilo bako sokak?

Halakorik aipatzearekin batera, “La gare de la liberté” aditu dute bozgorailutik, eta bertan jaistea erabaki dute, berandutzen hasia baitzaie. Bagoitik jaitsi dira, eta asko itxaron beharrik izan gabe, kontrako norabidean doan lehen trena harrapatu dute. Ez dakite arratsaldea erantzun haren bila aritu izanagatik zer ihardetsi koitadu hari. Eta erdi etsita, leihotik begiratzeari ekin diote.

Orduantxe begitandu dituzte “*La gare de la liberté*”-ko pareta ñabarrak, marrazkiz, lorez, apainduak daudenak. Pareta batzuek bizirik daudela dirudite, beste batzuk suak kiskaliak izan bailiran agertzen dira, hirugarren batzuk zuriz eta margarita ederrenez jantziak, eta ortzadarraren koloreko paretik badagoela ere esango nuke.

–O, zeinen pareta ederrak!

–Goiko hori duk politena!

–Bai zera, behekoa askozaz ere politagoa dun!

–Bale ba, ez goikorik ez behekorik, erdikoa aukeratuko diagu!

–Bai, erdian marrazturiko soka hori polit askoa dun!

Horrelaxe, bien artean hautaturiko erdiko paretan marraztutako sokaz berriketan, labur xamarra egin zaie itzulerako bidaia. Igaro dituzte “*La gare de la possession*”, “*La gare de la nuite folle*” eta gainerako guztiak. Oharkabean igaro zaie arratsa, berezi esnatu zaien arrats hau.

–Eta orain zer esango zioagu koitadu hari?

–Ez zakinat, “*La gare de la liberté*”ra joateko, marrazki politak zauden-eta.

–Kar, kar. Bai, eta Askatasunari errimarik politena bilatzeko.

–Eta su ezberdinei, edo su bakarrari beldurrik ez izateko!

–Eta oihanean galtzeko!

–Eta azaleko erliebeak egosten ikasteko!

–Gure txorakeriez zoratuko diagu azkenean! Ez, benetan, zein duk madarikatu hori?

–Zein, korapilo bako soka hori? Ez zakinat, neska, ez zakinat.

–Bueno, zertarako haren bila ibili, nahi duenean azaltzen bada, eta nahi duenean egiten badu ihes!

–Arrazoi dun, popatik galderak, kakatzara kekak!

Halaxe, algaraka, bizitzaz mozkorturik igaro dute Montparnasseko ate herdoildua. Ilunabarra gainean da, eta harri artean egon ohi den isiltasuna aditu daiteke parajeotan. Isiltasunaren ulu artean ordea, algararako betarik aurkitu dute mahaspasok, eta harririk hotzenak euren bat egite gorienaz berotu dituzte. Hortxe dabilta harri hotzotan artean, azken diosala elkarri emanaz, azken goza-

mena dastatuz lozorrora itzuli artean. Igaro zaizkie, bada, beroaldiak eta askatasunak, eta berriz ere, betiereko ametsera bueltatu behar izan dute. Norbera sartu da bere lur zatitxoan, elkarrengandik gertu, baina norbera bere zuloan. Orduan, ohartu dira bien artean aukeratzen dela erdiko marrazkia, baita pertsonak bereizten dituen erdiko distantzia ere. Jabetu dira, batzuei urrezko eraztunek idazten dietela distantzia-gabezia, betiereko (betiereko?) distantzia-gabezia. Beste batzuei, aldiz, egunsentiak izkiriartzen omen dizkie mugak. Eurek, berriz, Askatasunari eman zioten beren mugarriak ezartzeko lana. Askatasunak txukun bete zuen lana, inondik ere, baina gero, beti azaldu ohi den bere errimarik politenak, goritasunez itsututa distantzia laburtu omen zien. Beno, norberak eta ondokoak, ondokoak eta norberak, hautatzen du nori egin kasu, eta halaxe sortzen dituzte euren arteko distantziak.

Azkenean, mahaspasok elkarrengandik gertuegi, elkarrengandik urrunegi dauden zuloetan sartu dira, murgil egin dute “Beauvoir” eta “Sartre”z apaindutako harripera. Azken irriñoa elkarri, eta segidan loak hartu ditu.

Bitartean, lehena azaldu den koitadu hori, zera absolutu handiegi zabalegi hartaz engainatutako izakitxo hori, kalerik kale dabil, noraezari jarraiki. Honi ere iluntzen ari zaio, eta metroa hartzea deliberatu du. Horrelaxe, aurpegi goibelaz igo da bagoi jendetsura, eta bere gogoetan murgildurik, aurrerantz jarraitu du, aurrerantz inertzia soilaz.

Esango nuke gaur “*La gare de la désespoir*”en jaitsiko dela, baina beno, nork daki bihar zein geltokitan jaitsiko den!